

2022ko azaroaren 11, ostirala

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4870

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 2koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, EAEko elkarte edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko 2022ko dirulaguntza-deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2022ko ekainaren 8ko Ebazpenaren bidez, EAEko elkarte edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeko garatzen dituzten proiektuak diruz laguntzeko 2022rako deialdia egin zen.

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- I. eranskinean zerrendatutako erakundeak aurkeztutako eskabidean atzera egitea onartzea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bigarrena.- II. eranskinean zerrendatutako erakundeek aurkeztutako eskabideak ez onartzea, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.- III. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei esleitzea memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko laguntzak, aipatutako eranskinean zehazten diren zenbatekoen arabera. Laguntza horiek minimis izaera dute, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduari lotuta daude (EBAO, L 352. zk., 2013-12-24koa).

Laugarrena.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioko Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Bilbao, 2022ko azaroaren 2a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria.

MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

2022ko azaroaren 11, ostirala

I. ERANSKINA

ESKATZAILEEN ATZERA EGITEA

| Kodea | Izena | Proiektua | Atzera egiteko arrazoia |
|-------|------------------------|---|--|
| 003 | Fundación Ramón Rubial | La experiencia resiliente en Hondarribia (1931- 2020) | Atzera egin du, aurkeztutako proiektua ez dagoelako deialdi honetan diruz lagundu beharreko jardueren artean |

2022ko azaroaren 11, ostirala

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

| Kodea | Izena | Proiektua | Baztertzeko arrazoa |
|-------|------------------------------------|--|--|
| 005 | Goldatu Elkartea Soziokulturala | Oroimen historikoaren aldeko eta inpunitatearen aurkako proiektuak aurrera darrai | Ez du betetzen deialdiaren 3.1 artikuluan ezarritakoa, ez da diruz lagun daitekeen jarduera. |
| 014 | Laumunarrieta Elkartea | Emakumeon Memoria 1937 | Ez du betetzen deialdiaren 3.1 artikuluan ezarritakoa, ez da diruz lagun daitekeen jarduera. |
| 016 | Harresi Kulturala Elkartea | Recuperación de la Memoria Histórica en el Valle de Turtzioz/Trucíos —de la posguerra a la democracia— | Ez du betetzen deialdiaren 4.1 artikuluan ezarritakoa. Elkartearen helburuen artean ez dago memoria historikoa berreskuratzea. |
| 020 | Asociación Cultural Marea | «Las que fueron silencio» obra teatral | Ez du betetzen deialdiaren 3.1 artikuluan ezarritakoa, ez da diruz lagun daitekeen jarduera. |
| 021 | Asociación Cultural Marea | Memoria Histórica y mujer. Cárceles de mujeres franquistas. | Ez du betetzen deialdiaren 2. atalean ezarritakoa, hau da, diruz lagun daitezkeen jarduerak egiteko denbora-eremua. |

2022ko azaroaren 11, ostirala

III. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

| Kodea | Izena | Proiektua | Dirulaguntza (eurotan) |
|----------------|--|---|------------------------|
| 011 | Juan De Los Toyos Fundazioa | De niñas vascas de la guerra a mujeres en el exilio... | 5.151,40 |
| 006 | Jesus M ^a Leizaola Fundazioa | Ramon Maria Aldasoro (1897-1952) | 8.552,67 |
| 015 | Juan De Los Toyos Fundazioa | Las Juventudes Socialistas Unificadas en la Bizkaia republicana | 4.890,10 |
| 019 | Kepa Ordoki MHB Elkartea Irun | Saseta, Monzon eta Gudarien egiñak | 9.371,70 |
| 017 | Badihardugu: Deba Ibarreko Euskera Alkartia | Gerrako Ahotsak: Gerra Zibileko ahozko ondarearen bilketa, lanketa eta sareratzea | 6.000,00 |
| 008 | Gukmedia Kultur Elkartea | «Hemen gertatu zen» serial irrati-fonikoa | 6.000,00 |
| 018 | Pipergorri Kultur Elkartea | LXXX+II aniversario del cierre del hospital militar de prisioneros de guerra (HMPGG) de Gernika | 7.036,28 |
| 009 | Asociación Moviendote por la Integración | Milicianos y brigadistas en Euskadi durante GGCC | 3.704,40 |
| 007 | Gerediaga (Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea) | Durangoko bonbardaketan ehortzitako eta ondorengo bilaketa | 5.069,78 |
| 012 | Sabino Arana Fundazioa | 2022. urteko egitaraua | 10.000,00 |
| 010 | Asociación Moviendote por la Integración | Enseñanza en Euskadi durante la II República: escuela como eje vida social | 3.022,50 |
| 001 | Asociación Republicana Irunesa «Nicolás Guereñdiain» | Formación divulgación y homenajes , 2022 | 990,00 |
| 002 | Fundación Ramón Rubial | Ramon Perez Perez, alcalde socialista en Hondarribia | 7.332,50 |
| 004 | Fundación Ramón Rubial | Tiempo de Silencio, Resistencia y Clandestinidad de la Cultura Socialista en Cruces 1937-1977 | 4.532,50 |
| 013 | Sabino Arana Fundazioa | 100 Urte EAB (Emakume Abertzale Batza) | 10.000,00 |
| GUZTIRA | | | 91.653,82 |